



2025eko maiatzak 12. BATASUNAREN INDARRA

XXXIII Manifestua. Fibromialgiaren eta Neke Kronikoaren Sindromearen

Gaur hemen gaude **Fibromialgiaren eta Neke Kronikoaren Sindromearen Nazioarteko Eguna** ospatzeko.

Nazio Batuen Erakundeak ezarri zuen data hau, gizartea eta gobernuak gaixotasun horien inguruan heztea, kontzientziaztea eta mobilizatzea helburu. Izan ere, gaixotasun horiek, ikusezinak eta estigmatizatuak direnez, faktore garrantzitsutzat jo izan dira giza eskubideen, osasunaren, berdintasunaren eta diskriminazio ezaren arloan.

Hori dela eta, **Manifestu Bateratu** honetan berebiziko garrantzia du **Eskubideen Aldarrikapenak**, bai maila politikoan, bai maila zibiko, sozial eta komunitarioan.

Eskubide horiek **maila politikoan** bermatzeak ezinbestean dakar politika publiko espezifikoak planifikatzea eta ezartzea, osasun-zerbitzuak, gizarte-prestazioak eta diskriminazioaren aurkako babesa hobetzeko.

Alderdi zibikoari dagokionez, errespetuz tratatuak izateko eta gure gaixotasunengatik diskriminaziorik gabe zerbitzuak eskatzeko eta aukerak izateko eskubidea.

Alderdi sozialari dagokionez, gure eta gure familien bizi-kalitatea hobetzea ahalbidetuko diguten baliabideak eta arreta mediko egokia jasotzeko eskubidea.

Komunitatearen barruan, haren laguntza jasotzeko eta gure gizarteratzea sustatzen duten programetan sartzeko eskubidea.

Eskubide horien aldarrikapena ere kronikoa bihurtu da; izan ere, urtez urte ikusten dugunez, aurrerapausoak oso txikiak eta motelak dira, eta, gainera, haiek gauzatzeko orduan alde handiak daude lurraldeen artean, profesionalen artean eta arreta-, errespetu- eta gizarteratze-ereduen artean. Frustrazio-sentsazioa; minaren eta nekearen eguneroko erronka; ezintasunaren eta etsipenaren aurkako borroka pertsonala; ez ulertuak izateak (eta horrek berekin dakarren mesfidantza-sentimendua eta estigma) eragindako bakardade sakona, guztiak daude kronifikatuta.

Manifestu honek gure kezkak eta esperientziak islatu nahi ditu, ordezkatzan gaituzten elkarteengandik bilduak izan direnak. Baita, guk lehentasunezkoztat jotzen duguna agerian utzi ere, aurretik aipatutako eskubideetan aurrera egin ahal izateko eta gure **Bizitza Proiektu** pertsonala, familiarra, profesionala, laborala eta soziala **berregiteko** aukera izateko.

Gu gaixotasuna baino gehiago gara. Errespetua eta tratu-berdintasuna eskatzen ditugu, arreta eta inklusioa. **Osasunaren Kontzeptu Global** baten alde ari gara

borrokan, gure gaixotasunak gure bizitzako alderdi guztietan duten eragin handia kontuan hartuta tratatu daitezten.

Gure elkartearen ahotsaren bidez, **lehentasuna** ematen diogu osasun eta gizarte arloko profesionalen arteko lankidetzari, **Arreta Eredu Bakar eta Unibertsal** bati, **Diziplina Anitzeko Tratamendu Unitateak** sortuz, gure ondoan urtez korrontearen kontra borrokan jardun duten profesionalen ezagutza eta esperientzia aprobetxatuz. Beharrezkoa da unitateetako profesional guztien etengabeko eta nahitaezko prestakuntza eta prebentzioari, detekzioari eta teknika eta tratamendu berriei buruzko **Ikerketa** sustatzea.

Lurraldeak aipatu ditugu, eta, ordezkatzeko gaituzten elkarteetatik, mugimenduaren, gure indarren, gure mezuaren, gure aldarrikapenen Batasun Koherente eta Arduratsua aldarrikatzen dugu... lurraldeka egin beharreko ñabardurak eginda baina **soinez soin borrokatuz**, gure indarra murritu nahian dabilatzenei, interes ekonomikoengatik edo bestelakoengatik, atsedetik eman gabe.

Hogeita hiru urtez, **Baliozkotze Soziala** eskatu dugu gaurko gisako beste manifestu batzuen bidez. Orain, beste urrats bat aurrera egin eta **Humanizazio Soziala** eskatzeko unea iritsi da, Paradigma Aldaketa egin eta gure duintasuna aitortzeko konpromiso etikoa exijituz.

Manifestu honen oinarrian, pertsona kaltetuak eta ordezkatzeko gaituzten erakundeak daude, baina eskerrak eman behar dizkiegu, baita ere, hainbat eta hainbat profesional, erakunde, mediku-elkarte, gizarte alorreko elkarte, gizarte zibileko pertsona ezagun eta ezezagun eta agintari eta erakunde publikoei, gure kausaren alde emandako laguntzagatik, eskainitako arretagatik eta egindako borrokatagatik.

Orain, indar horri gureratuta, ozen eta argi esan nahi dugu **aski dela**, eta, beste gaixotasun batzuen aurrean pribilegiatuak izan nahi ez badugu ere, **ez gaudela etsipenean erortzeko prest**.

Manifestu honen bidez garbi utzi dugu zeintzuk diren gure esperientziak Gizarte eta Osasun Sistema Publikoaren gabezia eta ahuleziei buruz eta gure gaixotasunekiko erantzukizun komunitarioari buruz, bai eta zein diren lehentasunekotzat jotzen ditugun jarduerak ere. Eremu politiko, zibiko, sozial eta komunitarioetako arduradunek hori kontuan hartzeko eta horren arabera jarduteko betebeharra dute.

Izan ere, ez da bidezkoa eta ez da onargarria gizartearentzat hain garrantzitsuak diren Aktiboak babesgabetasun, bazterketa eta desparekotasun sozialeko egoeran horrela mantentzen segitzea.

2025eko maiatzak 12

